



## **Bermeo Futbol Taldeko jokalarien jokabidea:**

1. **Ez gara protestaka ibiliko eta ingurukoak errespetatuko ditugu:**
  - a Geure taldeko zein beste taldeko lagun eta entrenatzaileak.
  - b Arbitroa eta arbitroaren laguntzaileak, egongo balira.
  - c Zelaikoak, inguruetakoak (etxeakoak zein kanpokoak) eta autobuseko langileak.
  - d Delegatuak eta gurasoak.
2. **Jokatzean, jokoa amaituta edo partiduren bat ikustean, jarrera ona edukiko dugu.**
  - a Ez dut berba txarrik esango, irain edo ainenik, ezta gustu txarreko txantzarik egingo.
  - b Taldekideak animatuko ditut.
  - c Partida amaitu eta gero beste taldekoei bostekoa emango diet.
3. **Garbitasun eta elikatze ohitura onak edukiko ditugu.**
  - a Entrenamendu eta partiduak amaitu ostean dutxatu egingo naiz.
  - b Dutzatzean ez dut urik alperrik galduko.
  - c Behar den aurretiaz gosaldu edo bazkalduko dut.
4. **Etxeko eta kanpoko material eta instalazioak ondo erabiliko ditugu.**
  - a Dutzatu eta gero aldagela ondo batuta utziko dut.
  - b Entrenamendua amaituta, erabili dugun materiala batzen lagunduko dut.
5. **Entrenamendu eta lehiaketetara sasoiz helduko gara.**
6. **Kirola egiteko behar diren moduko arropak erabiliko ditugu.**
  - a Entrenamenduetara arropa egokia ekarriko dut.
  - b Jokatzeko Bermeo Futbol Taldeko arropa ofizialarekin (txandala, ...) behar den moduan jantzita etorriko naiz.
  - c Jokatzeko edo/eta entrenatzeko ez dut eraztunik, erlojurik, belarrikorik, katerik, piercingik... ekarriko.
7. **Kirola arretaz egingo dugu, geure buruek, taldekideek eta beste taldekoek lesiorik ez izateko.**
8. **Partidu eta entrenamenduetara telefono mugikorrik edo baliozko gauzarik ez dugu ekarriko.**
9. **Entrenatzaile eta teknikarien esana egingo dugu.**
  - a Eguraldia den modukoa izanda ere, entrenamenduetara etorriko naiz.
  - b Ezinbesteko arrazoiren bat egongo balitz entrenatzaileari jakinaraziko diot aurretiaz.
  - c Aldagelan kirola egiteko jantzita egongo naiz eta entrenatzaileak horrela esaten duenean lagunekin batera aterako naiz zelaira entrenatzera.
  - d Partidu batera ezin banaiz joan, aurretiaz jakinaraziko diot entrenatzaileari.
  - e Deialdia egin den ordurako sasoiz helduko naiz.
10. **Entrenatzaile eta teknikarien erabakiak onartuko ditugu.**
  - a Entrenatzaileak hartzen duen erabaki teknikoak onartuko ditut (titulartasuna, jokatzeko minutuak...).
  - b Deitzen didatenean goragoko edo beheragoko mailan dagoen taldearekin jokatuko dut.